

## OHARRA

### Larunbateko manifestazioaren aurrean...

Oñatiko hainbat gizarte eragile eta herritar bildu dira asteburuon exigentzia baten bueltan: diru publikoa herritarren beharretara bidera dadila. Garai zailak bizi ditu gizarteak, arduraz jokatzeari eskatzen dutenak, zalantzarik gabe. Dena den, gobernu taldearen aburuz, ardurena ez da soilik herritarren kontua: “Instituzio nagusiak -Eusko Jaurlaritzaren eta Gipuzkoako Diputazioaren- ez dabilta pertsonen ahaleginarekiko proportzionalak diren babes neurriak hartzen. Eta, ez, dirurik ez dagoelako, egon badagoelako. Gure onena eman behar dugu guztiok. Horretarako garaia da. Horregatik, testuinguru honetan, kezka bizi dugu alde batekoen, Eusko Jaurlaritzaren eta Gipuzkoako Diputazioaren, jarrera. Etxerako lanak egiteke dituzte oraindik”.

Bide horretan, EH Bilduko udal taldeak azaldu du ez dabilela entzungor. “Erdigunean jarria dugu herritarrek larunbatean emandako mandatua. Pertsona guztiak babesteko eta batzuek bizi duten egoera gogorra ahal beste leuntzeko konpromisoa hartzen dugu”, azaldu du.

Besteren artean, udal gobernuak hasia da behar nagusiak eta sektore zaugarrienak identifikatzeko lanetan, haien egoera leuntzeko bideratu beharreko laguntzak lehenbailehen martxan jartzeko. Esaterako, gaur, azaroak 17, herriko ostalariekin bilduko da haien egoera zein den ezagutzeko, hurrengo urratsak definitzeko baliagarri izango zaiolakoan. Era berean, Eusko Jaurlaritzari eta Gipuzkoako Diputazioari erantzukizuna eskatzen jarraituko du, haien eskumenekoak diren laguntzak abiarazi eta herritarrenak diren baliabideak pertsonen zerbitzura jar ditzaten.

Bada, udal gobernuak pandemia hasi zenetik izan du argi inor alboan utzi gabe egin behar dela aurrera. Eta, modu berean, argi du, herritarrei erantzukizuna eta konpromisoa eskatzen zaien neurri berean, euren zereginak behar moduan bete beharra dutela erakundeek. “Gu, gure zatia -eta geure eskumenekoa ez dena- egiten gabilta. Beste batzuek ere hala egitea eskatzen dugu”, gaineratu du.